



Arartekoaren ebazpena, 2008ko abuztuaren 21ekoa. Horren bidez, Errenteriako Udalari gomendatzen zaio bertako kale batean altxatutako estolda estalkiarekin estropezu egin eta erortzearen ondorioz aurkeztu zen ondare erantzukizuneko erreklamazioa izapidetu dezala.

Aurrekariak

1. Erreklamatzailak Arartekora jo eta azaldu zion Errenteriako Udalak ez ziola erantzun hark aurkeztu zuen ondare erantzukizuneko erreklamazioari.
2. Administrazio erreklamazioa 2004ko azaroaren 29an udalerriko kale batean erori eta horrek eragin zizkion kalteengatik aurkeztu zuen. Udaleko estolderia zerbitzuko kutxeta bat altxatuta zegoelako erori zen, zapaldu eta orkatila bihurritu baitzuen. Istripuaren ondoren, udaltzain bat hurbildu zen, kutxeta itxi zuen eta eroritakoari lagundu zion. Erreklamatzailak adierazi zuenez, erortzearen zuzeneko kausa kutxeta egoera kaskarrean egotea eta Udalak bide publikoa egoera onean mantentzeko duen betebeharra bete ez izatea izan ziren.
3. Administrazio espedientea izapidetzerakoan, erreklamatzailak gertakariari zegozkien frogak ekarri zituen, alegia, bere deklarazioa eta gertakariak izan ziren tokian zegoen lekuko baten deklarazioa. Jasandako kalteari zegokionez, txosten medikoa aurkeztu zuen; bertan, lesioak deskribatzen ziren eta laneko mutuaren ardurapean laneko istripuagatik baja egoeran egon behar izan zuen aldia zehazten zen. Kalte-ordainaren zenbatekoei zegokionez, errehabilitazio gastuei eta idazkiak egiteko kontratatu zuen abokatuaren gastuei buruzko fakturak aurkeztu zituen.

Era berean, espedientean beste agiri bat ere badago; horren bidez, erorketa gertatu zen lekura hurbildu zen udaltzaingoari txostena egiteko eskatu zitzaion. Agiri hori ez zitzaion helarazi zitzaigun espedienteari erantsi, baina bai aipatzen dela ondorengo udal txostenean, 2005eko abuztuaren 11koan.

Udal txosten teknikoaren arabera, kaltea herriko kale batean kutxeta bat oker jarrita zegoelako eragin zen. Udaltzaingoaren arabera, kutxeta lurretik bost bat zentimetro altxatuta zegoen. Hala ere, uste du kutxeta euria egin zuelako eta



hostoek eta beste material batzuek buxatu izan zezaketelako zegoela egoera horretan. Hala ere, txostenak oinezkoen jokabideari buruzko balorazio orokorra egiten du. Horren inguruan dio oinezkoek baldintza meteorologikoekin bat etorri izan behar dutela kalean eta gutxieneko arreta neurriak hartu behar dituztela, oztopoak antzeman ahal izateko, eta, *"beraz, arduragabe ibiltzeko ohitura saihestu behar dela"*.

Aseguru artekaritzaren txostena ere erantsi da –horrekin erantzukizun zibileko poliza du hitzartuta Errenteriako Udalak–. Bertan aipatzen denez, *"aurrekariak eta egindako peritu txostena kontuan hartuta, hori ez du kontratatutako erantzukizun zibileko polizak estaltzen"*.

4. Erreklamatzailerak adierazitakoaren kontra, 2006ko ekainaren 26ko udal ebazpenak erreklamazioa gaitzetsi zuen, udal teknikariaren txostenean eta kontratazio eta ondare arloko arduradunaren beste txosten batean oinarrituta.

Erreklamazio hau ikusita, kexan eta Udalak bidalitako informazioan esandakoa aztertu ondoren, egokia iruditu zaigu zuri honako gogoeta hauek helaraztea:

Gogoetak

1. Espediente honen xedea erreklamatzaileraren asmoaren oinarri juridikoa aztertzea da. Erreklamatzaileraren ustez, bide publikoan erori eta horren ondorioz jasandako kalte ekonomikoa Errenteriako Udalarari egotz dakiok, hori hiri bideak mantentzeko udal zerbitzuaren funtzionamenduak eragin baitu.
2. Aurretik, komenigarria da azpimarratzea zer lege esparrutan barneratzen den administrazio publikoen ondare erantzukizuna. Espainiako Konstituzioak 106.2 artikuluan dio hiritar guztiek dutela beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik ordaina jasotzeko eskubidea –ezinbesteko kasuetan izan ezik–, betiere, kaltea zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondorioa bada.

Araubide hori Herri Administrazioaren Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen bidez garatu



da. Arauzko xedapen horrek dio partikularrek administrazio publikoen aldetik kalte-ordaina jasotzeko eskubidea dutela beren ondasun eta eskubideetan jasaten dituzten kalteengatik, betiere, kaltea zerbitzu publikoen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioa bada.

Kalte-ordaina jasotzeko eskubideak bermatzeko ezartzen diren eskakizunak lege testutik bertatik datoz, baita Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia oparotik ere.

Horrela, beraz, honako alderdi hauek egiaztatu behar dira: kaltea benetan gertatu dela; kaltea ekonomikoki ebaluatzeko modukoa eta pertsona edo pertsona-talde batekin erlazionatuta dagoela; erreklamatzailari eragindako ondarezko kaltea udal zerbitzuen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren ondorioa dela eta zuzeneko eta berehalako kausa-efektu erlazio eksklusiboan dagoela, kausazko lotura aldatzea eragin dezaketen elementu bitxirik gabe; ezinbestetik ez dagoela; eta erreklamatzaileak bere jokabidearen ondorioz era zentzudunean eragindako kaltea jasateko betebeharrak ez duela. Era berean, gertakariak izan zirenetik urtebeteko epean erreklamatzeko eskubidea iraugita ez egotea eskatzen da.

Garrantzitsua da azpimarratzea Konstituzioak ezartzen duen ondare erantzukizuneko araubidea objektiboa edo emaitzetan oinarritutakoa dela eta ez duela ezer aipatzen udal zerbitzuen jardun edo ez-egitean errurik edo arduragabekeriarik egon behar duenik.

Administrazioen erantzukizun objektibo horren oinarria da pertsonak ez dituztela zertan beren gain hartu behar, besteak beste, interes orokorra lortzea helburu duen administrazio jardunaren ondorio kaltegarriak.

Kaltearen eta administrazio jokabidearen artean kausaltasun harremana ezarri ahal izateko, kasu zehatz bakoitza egiazkoak edo bistakoak direla frogatu diren gertakarietara dagokienez aztertu behar da. Doktrinak dioenez, erantzukizuna objektiboa denez, ahalegina egin behar da lesioa eragin duen kausa edo kausamultzoa zehazteko.

Doktrinak (GARCÍA DE ENTERRÍA) baldintzen baliokidetasunaren teoria ("kausa eragiten duena da eragindako gaitzaren kausatzailea") aplikatzeak dakartzan arazoak aipatu ditu eta nahiago izan du kausaltasun egokiaren teoria aplikatu





-administrazioaren eremuan ohikoagoa dena; horren arabera, kaltearen kausatzailatzat hartzen den gertakariak, berez, esperientzia komunaren arabera kaltea egiteko aproposa izan behar du.

Azken batean, administrazio organoak erreklamazio eskaeraren aldeko ebazpena eman behar izango du espedientean udal zerbitzuen ohiko edo ezohiko funtzionamenduaren eta eragindako kaltearen artean kausaltasun harremana dagoela frogatuta geratzen denean.

3. Halaber komenigarria da administrazio publikoek zerbitzu publikoen funtzionamenduaren ondoriozko kalteei zuzenean erantzuteko duten betebeharraren inguruan hausnartzea, aseguru konpainiekin sinatzen dituzten aseguru pribatuko kontratuak alde batera utzita.

Administrazioaren betebeharrak honek ez du zerikusirik Udalak eta konpainia pribatu batek erantzukizunaren betebeharrak estaltze aldera kontrata dezaketen aseguru polizaren kontratuarekin. Bai erantzukizun mota bai bideratu beharreko prozedura ez datoz bat ordenamendu juridikoak eta Auzitegi Gorenaren jurisprudentzia oparoak gaiaren inguruan biltzen dituzten ezarpenekin. Aseguru konpainiak arduratzen dira Kode Zibilaren 1902. artikuluan aipatzen diren eta aseguruaren hartzaileek eragin izan ditzaketen izaera zibileko kalteez, betiere, kontratatu dituzten gainerako klausula eta frankizien arabera.

Horregatik, konpainiaren irizpideak Administrazioaren erantzukizuna den balizko kalte baten arriskua konpainiak bere gain har dezakeen ala ez ezartzeko baizik ez du balio. Horrek ez du esan nahi ordenamendu juridikoak administrazio publikoei egozten dien erantzukizun zuzenetik libratuko denik. Nolanahi ere, udalak kontratatzen ez duen erantzukizunari administrazio horrek berak egin behar dio aurre eta, beraz, aseguru entitateak aurkako txostena egiteak ez du esan nahi hura ordaintzetik salbuetsita geratzen denik.

lido horretatik, ebazpena inoiz ezin da Administrazioak kontratatutako merkataritzako aseguru konpainiaren txostenean oinarritu; aitzitik, erantzukizunik egon den ala ez esan ahal izateko beharrezkoak diren eta prozedura administratiboan ezarrita dauden instrukzio elementuak bakarrik izan behar ditu kontuan.





4. Esku artean dugun kasuan, komeni da ondare erantzukizuna osatzen duten elementuak espediente administratiboan dauden gertakariekin bat etorri aztertzea.

Lehenik eta behin, kaltea egin izanaren errua Administrazioko zerbitzu publiko baten funtzionamenduari egozten zaio. Kaltea egozteko arrazoia da Udalak ez duela kale publikoetan mantentze lan egokiak egiteko betebeharra bete. Toki administrazioek, beste zenbait eskumenen artean, hiri bideak eta estolderia ahalik eta segurtasun baldintza onenetan mantendu eta artatu behar dituzte bertatik doazen oinezkoen babesean, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legearen 26.1 a) artikulua ezartzen duenarekin bat etorri.

Zerbitzu publikoa baldintza egokietan emateko betebeharrak horri esker, bidea xede horretarako erabili ahal izango da, pertsonen ohiko joan-etorria zailtzen duen oztoporik gabe.

Zerbitzu publikoak emateko estandarren edo estolda saretarako baldintza teknikoaren artean, estalkia ohiko arrazoiak direla medio (esate baterako, euri urek eragindako presioa) ireki edo mugitu ezin daitekeen moduan jartzeko betebeharra legoke.

Komeni da argitzea instrukzio organoak ez duela inolako frogarik aurkeztu baldintza meteorologikoak direla medio Administrazioa dagokion erantzukizunetik salbuetsi daitekeela esateko.

5. Bigarren, hiri bideak kontserbatzeko zerbitzuaren funtzionamenduaren eta erreklamatzailerak jasandako kalteen artean kausaltasun harremana dagoela ziurtatu ote den egiaztatu behar da.

Espedientea irakurri ondoren ikus dezakegu gai honi dagokionez egiaztatzen hartu diren eta garrantzitsuak izan daitezkeen zenbait inguruabar aipatzen direla. Espedientearekin batera gertatutakoaren lekuko izan zen pertsonaren adierazpena aurkeztu da, baita udal teknikariaren txostena ere. Bertan esaten da kuxeta ez zegoela behar bezala jarrita –estalkia kalearen mailatik ateratzen zen– eta udaltzain batek ere esku hartu zuela, erreklamatzailerari laguntzera joan baitzen eta kuxeta ondo jarri baitzuen.





Akatsen garrantziak edo oinezkoentzat dagoen arrisku objektiboak lehen aipatutako kausaltasun egokiaren teoriarekin bat etorri behar du.

Administrazio espedientean nahikoa egiaztatu da gertakaria izan zen lekuan kutxeta bat gaizki jarrita zegoela. Sortutako zuloa eta kalearen eta estalkiaren arteko aldea, bost zentimetrotik gorakoa, erorketa eragiteko modukoak ziren.

Hortaz, akats hori ez da arrazionaltasunaren parametroetan barneratzen. Esan behar da, oinezkoa arretaz ibilita ere, berak ezin dezakeela kutxeta baten tapa altxatuta egon daitekeela aurreikusi. Era berean, akatsa garrantzitsua zen eta konpontzeko modukoa ere bai eta, horregatik, udaltzainak esku hartu zuen kalearen eta estalkiaren arteko aldea desagerrarazteko.

Bost zentimetro ateratzen den estolda estalkia elementu bakana da oinezkoen bidean eta ezin daiteke aurreikusi, beste oztopo batzuekin gertatzen ez den bezala, gutxieneko arretaz ibiliz gero horiek aurreikusteko modukoak baitira. Arrazionaltasunaren parametroei jarraiki, aurreikusteko modukoa litzateke kalearen eta estalkiaren artean zentimetro bateko aldea egotea (halaxe uste du Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak 2001eko uztailaren 13ko 738/2001 epaian, JUR 2001\308904).

Hori dela eta, eta lekukoaren deklarazioak eta txosten teknikoak frogatzen duten bezala, erorketa bide publikoan kutxeta bat gaizki jarrita egotearen ondorioz gertatu zen.

Bestalde, nahiz eta instrukzio organoak pentsatu erreklamatzailleak kaltearen kausan zirikusia izan duela, frogaren zama Administrazioari dagokio. Instrukzio organoak horren inguruko froga sinesgarriak ekarri behar zituzkeen eta biktima tartean sartu izateak kausazko lotura haustea edo erruak pilatzea zekarrela erakutsi behar zukeen.

Azalpen gisa besterik ez, ildo horretatik doa Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak Errenteriako Udalaren ebazpena aurkaratzeko emandako uztailaren 5eko 594/2002 epaia. Ebazpen horren bidez, oina bideko zulo batean sartu zelako erori eta horrek eragindako kalteengatik egin zen ondare erantzukizuneko erreklamazioa gaitzetsi zen. Epai horren arabera:





"En definitiva, siendo incontestable la existencia de la irregularidad que presentaba la superficie en el lugar en que se produjo la caída, y siendo competencia municipal la adopción de medidas en orden a mantener la seguridad en lugares públicos, así como la pavimentación de las vías públicas urbanas, a tenor de lo establecido en el artículo 25 a) y d) de la Ley 7/1985, de 2 de Abril, reguladora de las Bases de Régimen Local; sin que de otro lado exista indicio, ni menos sustento probatorio, de que la caída del recurrente en el lugar en que aquélla se produjo sea consecuencia de una falta de diligencia en la conducta del lesionado, procede declarar la responsabilidad patrimonial del Ayuntamiento demandado."

Estolderiako kuxteta bat behar bezala babestu gabe egoteari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak hori Administrazioaren ondare erantzukizuna dela adierazi du hainbat epaitan, besteak beste, maiatzaren 27ko 397/1999 zk.koan (RJCA 1999/2251) eta abenduaren 14ko 1229/2001 zk.koan (RJCA 2002\353).

Azken batean, esan behar da kuxteta bat gaizki jarrita egotea izan dela erreklamatzailleak jasandako kalteen kausa nagusia. Hori dela eta, Erreenteriako Udalak arduratu behar du, estolderia mantentzeko zerbitzu publiko horren titular den heinean, sortutako kalteak ordaintzeaz.

Hori guztia dela eta, erakunde hau sortzen eta arautzen duen otsailaren 27ko 3/1985 Legearen 11 b) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritik, honako gomendio hau egiten da:

20/2008 GOMENDIOA, abuztuaren 21ekoa, Erreenteriako Udalarari egina

Atzera bota dezala aurkeztutako erreklamazioa gaitzetsi zuen 2006ko ekainaren 26ko ebazpena, administrazio espedientetik ondoriozta daitekeenaren arabera, erorketaren kausa hiri bideak eta bertako estoldak mantentzeko zerbitzu publikoaren funtzionamendu ezegokia izan baitzen.

Ondoren, beste ebazpen bat eman dezala eta, bertan, bere egin dezala ondare erantzukizuna eta erreklamatzailari espedientean egiaztatutako kalteak ordain diezazkiola.

